



Gipuzkoan Aldirietako trenak jaietako gau guztietan ibiliko dira

Renfek gaueko 72 tren berezi eskainiko ditu Donostiako Aste Nagusian

- Tren berezi horiek erabat erabiliz gero 24.000 ibilgailu pribatu inguru ibiltzea ekidingo litzateke

Donostia, 2022ko abuztuaren 10a (Renfe).

Donostiako Aste Nagusia ospatuko denez eta hitzordu garrantzitsuetan ohikoa den moduan, Renfe Aldiriak-ek gaueko 72 trenez osatutako dispositibo berezia antolatu du larunbat gauek, hilak 13, abuztuaren 21eko goizaldera arte, igandea. Aldirietako gaueko trenak etenik gabe egongo dira martxan jaietako asteko gau guztietan.

Hala, Renfeko indartze zerbitzuen helburua da, batez ere, gazte ugari iristea eta goizaldean itzultzea erraztea eta, aldi berean, horrelako joan-etorrietan trenak ematen duen segurtasuna bermatzea. Gipuzkoako beste udalerrri batzuetako bidaiari guztiek Donostiara iristeko eta bertatik itzultzeko bidaia trenez egin ahal izatea bermatzea da xedea, jaietan gozatzeko.

Hala, jaietako 8 egunetako gauean, egunero gaueko tren bereziak eskainiko dira Donostiatik Tolosa eta Irunera (23:40tik 05:20ra).

Orotara, Donostiako Aste Nagusiaren zortzi egunetan zehar 36.000 plaza eskainiko dira; datu hori 24.000 ibilgailu pribaturen parekoa da. Tren horiek Ziurtagiri Berdea duen jatorri berriztagarriko energia elektrikoarekin mugitzen direnez, ibilbide osoan atmosferara 165 tona CO² baino gehiago isurtzea saihestuko da.

Tren bidezko garraioan plazak areagotzeko plangintza hau lagungarria izango da Garapen Jasangarrirako Helburuetako (GJH) hamahirugarrena lortzeko, Klimaren aldeko Ekintza izenburua duena, hain zuzen ere klima aldaketa eta horren ondorioei aurre egiteko premiazko neurriak hartzea eskatzen duena.